

Dokumentu mota / Tipo de documento: ENMIENDAS / ZUZENKETAK

Nori zuzendua / Dirigido a: EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIA

Proposatzailea / Proponente: GURRUTXAGA, MAIALEN (EA-NV)
ANDUEZA, ENEKO (ES-SV)

Talde parlamentarioa / Grupo parlamentario: EA-NV/ES-SV

Data / Fecha: 2019.04.01

Espediente zenbakia / Número de expediente: 11/09/02/02/00025

Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: Euskera jakiteko eskubidea bermatzeko / Para garantizar el derecho a saber euskera

EA-NV

ES/SV





1. ZUZENKETA, ATARIKO TITULUAREN izenburua ALDATZEKO:

EGUNGO IDAZKERA:

ATARIKO TITULUA

PROPOSAMENA:

TITULU BAKARRA

ZIOA: Legegintzako hobekuntza teknikoa.





2. ZUZENKETA, 1. Artikulua (Xedea) ALDATZEKO:

EGUNGO IDAZKERA:

1. Artikulua. Xedea

Lege honen xedea, Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritarrek euskara ikasi, jakin eta erabiltzeko duten eskubidean urratsak ematea da, urteetan izan diren eragozpenak gaindituz eta ikasketa prozesuaren kostu ekonomikoak sortu izan dituen mugak ezabatuz.

PROPOSAMENA:

1. Artikulua. Xedea

Lege honen xedea da Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritar helduek euskara ikasi eta erabiltzeko duten eskubidea bermatzea. Helburu hau iristeko, ikuspegi akademiko zein ekonomikotik irizpide egoki eta eraginkorrak finkatzen dira, ikastaroak gainditu dituen ikasleari euskararen ikasprozesuan matrikulatzeagatiko tasa edo diru-kopurua doan izan dakion.

ZIOA: Testua osatzen da ikasprozesuaren eraginkortasuna aipatuz.





3. ZUZENKETA, 2. Artikulua (Lurralde-eremua) ALDATZEKOA:

EGUNGO IDAZKERA:

2. Artikulua. Lurralde-eremua

Lege honetan aurreikusitako neurriek Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritarrengan izango dute eragina.

PROPOSAMENA:

2. Artikulua. Aplikazio-eremu objektiboa

Lege honetako xedapenen eraginpean izango dira Euskadiko Autonomia Erkidegoan, helduen euskalduntzean parte hartzen duten herritar heldu guztiak.

ZIOA: Legegintzako hobekuntza teknikoa.





4. ZUZENKETA, 3. Artikulua (Printzipio nagusiak) ALDATZEKO:

EGUNGO IDAZKERA:

3. Artikulua. Printzipio nagusiak

EAEko herritar guztiek dute euskara jakiteko eskubidea.

Herritarrak ezin izango dira diskriminatu euskara ikasteko eskubidea gauzatzeko unean bizi diren udalerria edo beste ezein arrazoi dela medio.

Herritarrak ezin izango dira diskriminatu euskara ikasteko eskubidea gauzatzerako unean bizi duten egoera ekonomikoagatik.

PROPOSAMENA:

3. Artikulua. Eskubidea

1. Herritar heldu orok du euskara ikasteko prozesua doan izateko eskubidea, muga ekonomikoak zein lurraldekoak oztopo izan gabe, HABEren curriculumean edo Hizkuntza Eskola Ofizialen curriculumean definituriko B2 mailako gaitasun komunikatiboa eskuratu arte. B2 izango da gehieneko atalase-maila Lege honetan onartzen diren eskubideei dagokienez, betiere gainditzen bada programaturiko errendimendu akademikoa, matrikulaturik dagoen hizkuntza-eskolak edo HABEk ezarritako prozeduren arabera.
2. Lege honetan zehaztutako eskubideak izateko, herritarrak hamasei urtebete izan beharko ditu, jarraibideei hasiera ematen zaien unean bertan.





ZIOA: Ikas prozesuaren eraginkortasuna aipatzen da, B2 mailara arteko prozesua izango dela gehienezko atalase maila, eta azkenik, eragin eremua: hizkuntza-eskoletako eta HABEko ikasleak. Azkenik, muga urteetan jartzen da: 16 urte.





5. ZUZENKETA, 4. Artikulua (Gaitasuna) KENTZEKOA:

ZIOA: Beste artikuluetan sartu egin da.





6. ZUZENKETA, 4. Artikulu berri bat GEHITZEA:

PROPOSAMENA:

4. Artikulua. Ikasketa-eremuak, aurrerabide akademiko nahikoa eta matrikularen ordainketa

Euskara ikasteagatik Lege honetan aitortutako matrikula-gastuak doan izateko eskubidearen onuradun izateko, herritar helduak:

- a) HABEren euskaltegien erregistroan inskribatuta dagoen ikasgu bateko edota Hizkuntza-eskola ofizial bateko euskara-ikastaro homologatu batean matrikulatuta egon beharko du.
- b) Ikas maila bakoitza gainditzeko gehieneko ikastordu kopuru bat aitortua izango du.
- c) Euskaltegi eta Hizkuntza Eskola Ofizialetan euskara ikasteko matrikula egiteagatik gehieneko diru kopuru jakina ordaindu beharko du.
- d) Euskaltegiko zein Hizkuntza-eskolako matrikulagatiko diru-kopurua norberak bere pentzudan ordaindu beharko du, matrikula-kopurua ordaintzeko beste inoren dirulaguntza edo diru-ekarpenik gabe.
- e) HABEren zein Hizkuntza-eskoletako curriculumean ezarritako, eta horien baitako ebaluazio-irizpideen arabera mailaz mailako helburuetara iritsi dela egiaztatu beharko du.

ZIOA: Zehaztu egiten da gehiago nola burutuko den matrikularen doakotasuna. Beste aldetik, eraginkortasuna bermatzeko, mailak lortzeko aurreikusten diren ordu lektiboak finkatuko dira amaierarik gabeko prozesuei mugak jartzeko doakotasuna bideratzerakoan eta, azkenik, kontrol mekanismoak jartzen dira ikasleei kobratu beharreko matrikuletan topeak jarritz.





Ikaslea izango da doakotasunaren eskubidearen jabea. Beraz, enpresa edo administrazioak osorik finantzatutako ikasleen matrikulak ez dute lekurik izango lege honen esparruan.





7. ZUZENKETA, 5. Artikulua. (Eskubidearen bermea) KENTZEKOA:

ZIOA: 3. artikuluan sartu egin da.





8. ZUZENKETA, 5. Artikulu berri bat GEHITZEA:

PROPOSAMENA:

5. Artikulua. Ikasprozesuaren doakotasuna

Euskadiko herritar helduentzat doakoa izango da euskara-ikastea, HABEren zein Hizkuntza-eskoletako curriculumetan ezarritako B2 mailarako helburuak iritsi arte, ikasle bakoitzak lege honen 4. artikuluan xedatutakoa egiaztatu ondoren.

HABE egingo da ikas prozesuaren sostengurako ikasleei egotzitako kostuen kargu, HABEren erregistroan inskribatutako euskaltegi batek euskara-ikastaroak HABEren jarraibideei loturik antolatzen dituenean edota ikasleak Euskadiko Hizkuntza-ofizial batean maila gainditu duela egiaztatzen duenean.

Foru-aldundi, udal zein beste Erakunde euskara-ikasteagatiko matrikularen doakotasuna bermatzeko eskubidea, euren aurrekontuen pentzudan, zabal dezakete, betiere lege honetan aurreikusi gabeko mailetako egitasmoetan.

ZIOA: Ikas prozesuaren eraginkortasuna aipatzen da, B2 mailara arteko prozesua izango dela gehienezko atalase maila, eta azkenik, eragin eremua: hizkuntza-eskoletako eta HABEko ikasleak.





9. ZUZENKETA, 6. Artikulua KENTZEA:

ZIOA: Hezkuntza sistema: ezabatu egin da titulu osoa Hezkuntza legean garatuko delako.





10. ZUZENKETA, LEHEN TITULUAREN izenburua KENTZEA:

ZIOA: Legegintzako hobekuntza teknikoa.





11. ZUZENKETA, 6. Artikulu berri bat GEHITZEA:

PROPOSAMENA:

6.-Artikulua. Bermea

Eusko Jaurlaritzak bermatuko du lege honetan xedatutakoa egoki eta zuzen betetzea.

Eusko Jaurlaritzak arautuko du lege honen 4. artikuluak xedatutako doakotasun programa.

Horrela, egitasmo honen kudeaketarako giza eta ekonomi baliabideak aurreikusiko dira urteroko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan.

Gainera, HABEren egitekoa izango da egitasmo honen jarraipen didaktikoa egin eta ikuskaritza burutzea, lege honetan xedatutako helburuekin bat etorriz, diru-baliabideak jarriaz parte hartu nahi duten Erakundeei beharrezko dituzten txosten, datu eta argibideak eskainiz.

ZIOA: Legegintzako hobekuntza teknikoa.





12. ZUZENKETA, 7. Artikulua KENTZEA:

ZIOA: Hezkuntza sistema: ezabatu egin da titulu osoa Hezkuntza legean garatuko delako.





13. ZUZENKETA, BIGARREN TITULUAREN izenburua KENTZEA:

ZIOA: Legegintzako hobekuntza teknikoa.





14. ZUZENKETA, 8. Artikulua KENTZEA:

ZIOA: 3. Artikuluan sartu da.





15. ZUZENKETA, 9. Artikulua KENTZEA:

ZIOA: 6. Artikuluan sartu da.





16. ZUZENKETA, 10. Artikulua KENTZEA:

ZIOA: Migratzaile zein errefuxiatuek berdintasunean oinarritutako eskubideak izango dituzte lege honen arabera. Lege Proposamen honetan doakotasuna bermatzeko baldintzak arautzen dira.





17. ZUZENKETA, 11. Artikulua KENTZEA:

ZIOA: Ezabatu egin da Administrazio Publikoaren euskalduntzearen aipu oro (11. artikulua), enplegu publikoaren legean garatzen delako.





18. ZUZENKETA, Xedapen indagabetzailea KENTZEA:

ZIOA: Xedapen indagabetzailea jarri beharrik ez dago, legez beti horrela da. Erredundantea da.





19. ZUZENKETA, Lehenengo Azken Xedapen berri bat GEHITZEA:

PROPOSAMENA:

LEHENENGO AZKEN XEDAPENA.- 29/1983 HABESEA legea eguneratzeaz.

- 4. b. artikuluan gehitu:
 - 8) EUDELen ordezkari bat
 - 9) HABEren euskaltegien erregistroan inskribatutako euskaltegi pribatuen ordezkari bat.
- 19. artikulua ezabatu.
- 20. artikulua idazketa aldatu:

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio, HABEren Zuzendaritza Batzordearen proposamenez, Euskaltegietako eta autoikaskuntzako zentroetako irakaskuntzen antolamendua eta bertako irakasleek eduki beharreko titulazioen arauetza, baita ere zedarritzea irakaskuntza-jarduera horiek burutuko diren eraikinek haien instalazioek eta zerbitzu pedagogikoetako azpiegiturek bete beharreko baldintza teknikoak.

HABEren Zuzendaritza Nagusiari dagokio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari egitea HABEren Curriculumean jasotako mailak gainditu eta gero eman beharreko ziurtagirien proposamena.

ZIOA: HABE legeak premiazko ditu zenbait aldaketa eta eguneratze.

19. artikulua Funtzio Publikoaren legeak indar gabe laga zuen.

20. artikuluari dagokionez:





HABEren curriculum zein egiaztatze gintzarako egokituta.
Euskararen autoikaskuntza zentroak barneratzen dira sisteman.
Teknologia berrien erabilerarako gutxienekoak.

HABEren zuzendariaren egitekoa egiaztatze gintzan, burokraziak saihesteko.
EGAren kudeaketan sailen arteko eskualdatzearen dekretuarekin bat datorren idazketa.





20. ZUZENKETA, Bigarren Azken Xedapen berri bat GEHITZEA:

BIGARREN AZKEN XEDAPENA

Eusko Jaurlaritzak burutuko du lege honen garapena, lege hau indarrean jarri, eta gehienera ere, urtebeteko epean.

ZIOA: Eusko Jaurlaritza da dekretu bidez garatzen duena legea.





21. ZUZENKETA, Azken Xedapea ALDATZEKO:

EGUNGO IDAZKERA:

AZKEN XEDAPENA

Lege hau garatu eta gauzatzeko beharrezko diren erregelamendu-mailako xedapenak emateko eskua ematen zaio Jaurlaritzari eta hori burutzeko legea argitaratu eta gehienez urtebeteko epea izango du.

Lege hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta jarduneko hurrengo Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen diren egunean sartuko da indarrean.

PROPOSAMENA:

HIRUGARRENA AZKEN XEDAPENA.- Indarraldia

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta jarduneko hurrengo Euskadiko Autonomia Elkarteko Aurrekontu Orokorrak onartzen diren egunean jarriko da indarrean, HABESEA 29/1983 Legearen eguneratzeari buruzko hiru artikulak, berriz, Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu egunean jarriko dira indarrean.

ZIOA: Eusko Jaurlaritza da dekretu bidez garatzen duena legea.





22. ZUZENKETA, Zioaren 2.parrafoa KENTZEA:

EGUNGO IDAZKERA:

Halaber, 10/1982 Euskararen erabilpena normalizatzeko oinarrizko legearen 5.1 artikulua herritar guztiek euskara jakiteko eskubidea dutela berresten du.

PROPOSAMENA:

Kentzea.

ZIOA: Hobeto egituratu Euskadiko lege-korpusa lege honi dagokion eremuetan.





23. ZUZENKETA, Zioaren 5., 6, 7, eta 8 parrafoak KENTZEA:

EGUNGO IDAZKERA:

Hezkuntzaren alorrean esaterako, 138/1983 dekretuak hizkuntza ofizialen erabilera irakaskuntza ez-unibertsitarioan arautu zuen eta bertan ezarri ziren A, B eta D ereduak. Halaber, Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 legearen helburuen artean aldarrikatu zen ikasle guztiek derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izan dezaten bermatu behar dela.

Hezkuntza-sistematik kanpo dauden herritarrek euskara jakiteko eskubidea gauzatzeko bideak 29/1983 HABEren sortze-legeak jarri zituen. Bertan, euskaltegi-sarea definitzeaz gain EAEko administrazio orokorrari helduen euskalduntzeko sistema finantzatzeko eginkizuna ematen zitzaion.

Ahalegin horiek guztiek, hala ere, hainbat disfuntzio erakutsi dituzte.

Hezkuntza-sistemak derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzeak ez die bermatzen ikasle guztiei euskaraz nahikotasunez aritzeko gaitasuna edukitzea.

PROPOSAMENA:

Kentzea.

ZIOA: Hobeto egituratu Euskadiko lege-korpusa lege honi dagokion eremuetan.





24. ZUZENKETA, Zioaren 4., 5., 6. eta 7. parrafo berriak GEHITZEA:

PROPOSAMENA:

Horrela, Autonomia Estatutuaren garapenean, Eusko Legebiltzarrak 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa onartu zuen. Lege honen 5.1 artikulua herritar guztiek euskara jakiteko eskubidea dutela berresten du.

Lege hau mugarri argia izan da euskalgintzarako: euskararen erabilerari lege-oinarri sendoa eskaintzeaz gainera, garai horretako euskararen erabilera-esparruak indartzeko eta zabaltzeko lehentasunak finkatu zituen, eta horren argitan, euskal erakundeek hizkuntza-plangintzarako gidalerroak egituratzeko esparruak finkatu, Eusko Legebiltzarreko partaideen aldetik babes zabala izanik.

Lege horren 28. artikulua garapenean, Eusko Legebiltzarrak 29/1983 HABESEA Legea onartu zuen, helduen euskalduntzerako Erakundea sortu eta euskaltegien zereginak arautuz. Hezkuntza-sistematik kanpo dauden herritarrek euskara jakiteko eskubidea gauzatzeko bideak 29/1983 HABEren sortze-legeak jarri zituen. Bertan, euskaltegi-sarea definitzeaz gain, EAEko administrazio orokorrari helduen euskalduntzeko sistema finantzatzeko eginkizuna ematen zitzaion.

Hala eta guztiz ere, bi legeok aukera zabala eta tinkoa eskaini izan dute ia berrogei urtetan zehar, helduen euskalduntzearen eremuko egitasmoak zehaztu, landu eta giza-zein ekonomi baliabideez hornitzeko. Legeak eta arauak ez dira, ordea, aldaezinak, behar eta premia berriei zuzen eta egoki erantzuteko moldatu eta eguneratu behar izaten dira, honenbestez.

ZIOA: Hobeto egituratu Euskadiko lege-korpusa lege honi dagokion eremuetan.





25. ZUZENKETA, Zioaren 9.parrafoa ALDATZEKO:

EGUNGO IDAZKERA:

Helduen euskalduntzearen alorrean herritarrek euskara ikastea ez da eskubide unibertsal bezala jasotzen. Ondorioz, herritarrak inbertsio ekonomiko adierazgarria egitera behartzen ditu eskubidearen jabe izan nahi badute. Egia da administrazioak diruz laguntzen duela euskara ikastea, baina sistema ez da osoa eta ez du biderik jartzen herritarrentzat hizkuntza ofizial biak jakitea kostu ekonomiko nabarmenik izan ez dezan. Jaso ditzaketen diru-laguntzak ez dira homogeneoak ezta ekitatiboak ere. Herritarra bizi den udalerriaren arabera aldatzen dira. Udal askok HABEk emandako diru-laguntzak osatzen dituzte, baina laguntza jasotzeko parametroak eta baldintzak udal batetik beste batera kanbiatu egiten dira herritarren artean desberdintasun onartezinak sorturik. Desberdintasuna ere agertzen da euskara euskaltegi-sarean ikasten bada edo Hizkuntza Eskola Ofizialetan.

PROPOSAMENA:

Halaber, helduen euskalduntzearen alorrean herritarrek euskara ikastea ez da eskubide unibertsal bezala jasotzen. Ondorioz, herritarrak inbertsio ekonomiko adierazgarria egitera behartzen ditu eskubidearen jabe izan nahi badute. Egia da administrazioak diruz laguntzen duela euskara ikastea, baina sistema ez da osoa eta ez du biderik jartzen ikasketa-prozesu horrek herritarrentzat kostu ekonomiko nabarmenik izan ez dezan. Jaso ditzaketen dirulaguntzak ez dira homogeneoak ezta ekitatiboak ere. Herritarra bizi den udalerriaren arabera aldatzen dira. Udal askok HABEk emandako dirulaguntzak osatzen dituzte, baina laguntza jasotzeko parametroak eta baldintzak udal batetik beste batera aldatu egiten dira herritarren artean desberdintasunak sorturik. Desberdintasuna ere agertzen da euskara euskaltegi-sarean ikasten bada edo Hizkuntza Eskola Ofizialetan.

ZIOA: Hobeto egituratu Euskadiko lege-korpusa lege honi dagokion eremuetan.







26. ZUZENKETA, Zioaren 10., 11, 12, 13. eta 14. parrafoak KENTZEA:

EGUNGO IDAZKERA:

Egoerara hori guztia kontuan hartuta lege honek helburu du herritarrek euskara ikasteko duten eskubidea egiatan bermatzeko baldintzak ezartzea eta herritar guztiek eskubide hori gozatzeko aukera berdinak eta ekitatiboak izan ditzaten bermea ematea.

Atariko tituluan, legearen helburua eta aplikazio-esparrua adierazteaz landa, onartzen zaie EAEko biztanle guztiei euskara jakiteko eskubidea eta EAEko administrazio orokorrari esleitzen zaio eskubidea bermatzeko ardura. Halaber, eskubide hori gauzatzeko unean inor ezin dela bizilekuaren arabera diskriminatu aldarrikatzen da. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 maila lortzean jotzen da eskubidea gozaten ari dela herritarra.

Lehen tituluak hezkuntza-sistemari buruz dihardu. Bertan ezartzen da Derrigorrezko Irakaskuntza-aldia bukatzean ikasle guztiek Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 maila egiaztatu beharko dutela Bigarren Mailako Irakaskuntzako graduatu titulua jaso ahal izateko. Gainera, sistemara berandu sartutako ikasleen kasua era arautzen da.

Bigarren titulua helduen euskalduntzeaz dihardu. Lehenik lege honen kasuan pertsona heldu zer den definitzen da. Herritarrek B2 maila pareko jakintza lortzeko euskara ikastea herritarrentzat doakoa izango dela ezartzen du, baldin eta ikasketa Hizkuntza Eskola Ofizialean eta euskaltegi publikoetan edo homologatuetan egiten bada. Baliabidea ekonomikoak Eusko Jaurlaritzak jarri beharko dituela eta HABEk kudeatuko dituela esaten da. Diputazioei eta udalei laguntzak emateko aukerak zein kasutan onartzen zaie seinalatzen da. Etorri berriek euskara eta gaztelania ikasteko eskubidea dutela eta ikasketa-prozesua aldi berean egin behar dela aldarrikatzen da. Eta azkenik, langile publikoek euskara jakiteko eskubidea dutela aldarrikatzen da eta administrazioek eskubide hori bermatzeko ardura dutela.

Xedapen gehigarri batek, xedapen indargetzaile batek eta azken xedapenak osatzen dute legea.





PROPOSAMENA:

Kentzea.

ZIOA: Hobeto egituratu Euskadiko lege-korpusa lege honi dagokion eremuetan.





27. ZUZENKETA, Zioaren 10. parrafo berria GEHITZEA:

PROPOSAMENA:

Horregatik, xedea euskal hiztunak sortzea eta euskararen erabilera sendotzea eta hedatzea izanik, hurrengo urteetan ere euskaltegien egitekoa eta jarduna bultzatzeko, helduen euskalduntzearen egitasmoak herritar helduen hizkuntza-beharrizan aldakorretara egokitu nahi dira, eta honenbestez, egitasmoak giza-zein diru-baliabide nahikoz hornitu, euskaltegi zein Hizkuntza-eskoletan ematen diren euskara-ikasteagatiko matrikula ikasleari doan izan dakion, B2 mailara arteko hizkuntza-helburuak iritsi arte, helburuak bereganatu dituela egiaztatzen duenean.

ZIOA: Hobeto egituratu Euskadiko lege-korpusa lege honi dagokion eremuetan.

